



▶ AINHOA ARTETA SOPRANO TOLOSARRAK ABIATU ZUEN AURTENGO SAGARDO DENBORALDIA, ASTIGARRAGAN

▶ SAGARDO BERRIA HORI-BERDEXKA KOLOREKOA, USAIN SAKONEKOA ETA OREKA PERFEKTUKOA DELA ESAN DUTE

Azken urteotako uztarik hoberena dela-eta, sagardo denboraldi itzela iragarri dute

Txotx! Datozen hilabeteotan Euskal Herriko txoko guztietan gehien entzungo den oihua izango da ez-bairik gabe, sagardotegietarako joan-etorriak etengabeak izaten hasiko baitira sagardo denboraldia

abiatzearekin bat. Euskaldunok gurearekin leialak garenez gero, nahiz eta uzta txarra izan, ez dugu, ez, hutsik egiten sagardotegiekin, baina aurtan, segur aski, are leialagoak agertuko dira edonon.

Izan ere, azken urteotan izan den uztarik oparoena izan da 2004koa, eta egunak joan ahala gorputzuko den sagardo gazte hori-berdexka eta sakona kalean da jada.

Garikoltz MUJKA

ASTIGARRAGA

Sagardogintzan izaten den egunik garrantzitsuenaren izan zuten atzo Astigarragan, hain zuzen, Sagardo Berriaren aurkezpen eguna. Irrika nagusi izan zen 2004ko sagardoa aurkezteko prentsaurrekora bertaratukoaren artean, Aste Santura arte abian egongo den txotx denboraldian gozatu ahal izango den sagardoa dastatu baitzuten ondoren Petritegi sagardotegian. Iazko sagardoak utzitako zapore gazi-gozoa alde batera utzi -2003ko lehorteak hemengo sagar uztak zapuztu zituen-, eta 2004ko uztaz eratutako sagardo berriak bertaratutakoaren aurpegiak alai-

tu zituen atzo. 2004ko uzta 15.000 milioi litro ingurukoa da, eta kopuru horren erdia osatzeko uzta Astigarragaldean bildu dute. Ikustean, «hori-berdexka kolorekoa, guztiz erakargarria» da eta, usaintzeko orduan, berriz, «oso usain sakona, gogorra eta fruta berdearen ukitua» omen du sagardo berriak. Ahoan, dastatzeko orduan, «azido eta tanino arteko oreka perfektua» azalartzen dela adierazi dute adituek, eta oreka horrek «freskagarritasuna» ematen dio jadanik merkatuan dagoen sagardo berriari.

Baserritarren lana goraiatu zuten 2004ko uztako sagardo berriaren aurkezpenean hitza hartu zuten guztiek. Beren aburuz, «sagastiak zaindu eta mainatzen» aritzen diren baserritarren lana sagardoa edateko orduan ere nabarmentzen da. Sagardozaileen eta sagardogileen arteko elkarlana areagotu



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Petritegi sagardotegiko 14. zenbakia duen upela irekiz aldarrikatu zuen Ainhoa Artetak «gure sagardo berria».

«OSO USAIN SAKONEKOA»

▶ **Aurtengo sagardoa «hori-berdexka, guztiz erakargarria» da kolorez, eta «oso usain sakona eta gogorra, eta fruta berde heldugabearen ukitua» du. Sagardo berriak «freskagarritasuna» ematen du ahoan.**

beharra ere agerian utzi zuen Sagardun Partzuergoko idazkari José Angel Goñik eta, «nahiz eta arazoak izan, horretan gabiltza eta denborak aurrera

egin ahala, konponduko da», adierazi zuen.

Azken hilabeteotan ihesbiderik utzi ez duen gripeak Ainhoa Arteta abeslari tolosarra ere

harrapatu du baina, halere, ozen eta irribarretsu abiatu zuen Sagardo Berriaren denboraldia, «gure sagardo berria» ozen aldarrikatuz, ohitura denez, aurrekua dantzatu ostean. Komunikabideen protokoloari kasu eginez, birritan heldu behar izan zion edalontziari, eta baita sagardo tragoxkari ere.

Denboraldia abiatzeko zela-eta nabari zen urduritasuna eta irrika nabarmendu zituen Lizasok. «Hasi da txotx denboral-

dia, eta bagendun gogoa, irekitzera zein etorriko, eta gaurkoan Ainhoa, denboraldiak jarraitzen badu hasierako ildoan, sekula baino kantariago izango da sagardoa». Egaña ere ez zen atzean gelditu: «Sagardo berri honi ohore, ta Ainhoan omenean, sagardo ona ta ahots ona, berdina da azkenean, lehenengo egin ta gero ondu egiten da barrenean, ta emozioz betetzen gaitu, kanpora irteten denean». Abian da txotx denboraldia.

Sagardoetxea izango du Astigarragak

2003ko ekainean jaio zen Sagardun Patzuergoa, eta Astigarragaldeko kultur taldeek, sagardogileek eta Astigarragako Udalak sustatu zuten. Sagardoa sustatu eta jarduerak antolatzea xede duen bilguneak egitasmo handia du orain esku artean: Sagardoetxea. Astigarraga erdian, Murgia jauregi alboan eraikitzea aurreikusi dute, eta lehen harria jarri dute jada. www.sagardun.com webgunean eraikinaren irudi birtuala dago. •

«Aurtan oso uzta ona izan da, kantitateagatik eta sagarraren kalitateagatik»

G.M.

ASTIGARRAGA

Poztasuna zen nagusi sagardogile eta aditu guztien ahotan, 2004ko uzta paregabea izanik, sagardo itzela delako emaitza. Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikari eta sagastietan aditu Ignacio Javier Larrañagaren esanetan, «aurten oso uzta ona izan da, nahiz eta lehorte

txikia izan. Azkenean taina hartu du, ordea».

Bere esanetan, eguzkiak sagarrak azukre gehiago izan dezan eragiten du eta, 2003ko lehorteari so eginez gero, «orduan sagarrak erre» zirenez gero, uzta urria eta txarra izan zen emaitza. Larrañagaren aburuz, «sagastiek bi urtetik behin ematen dute, prozesu hormonal bat izaten



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Jende asko aritu zen txotx egiten Petritegin.

da. Asko daukatenean, nolabait, ezin dituzte hurrengo loreak formatu, eta uzta gutxiago izaten da. Eta alderantziz, gutxi dagoenean, bada, hurrengo uztan erreserba gehiago daukate, lore gutxiago esan nahi dut, eta fruitu gehiago izaten da gero. Aurtan oso ona izan da, bai kantitateagatik eta bai sagarraren kalitateagatik». Gipuzkoako sa-

gardogileen presidente José Angel Gaztañagaren esanetan, «sagardoa seko dator», eta pozgarriz jazo zuen «hemengo sagarrak erabiliz kalitateko sagardoa izatea».

Sagardogileen Elkarte-ko presidente Miguel Zapainek adierazi zuenez, «oso sagardo urte ona izatea espero dugu, gorputz oneko sagardoa, sendo-sendo baitator».